

**LAB**

Halere, azken urteetan hainbat lorpen izan ditu langile batzordeak, non LABeko ordezkariak benetan aktibo izan diren. Hala, egindako lanak emandako emaitzen arteak nabarmentzekoak dira:

- Ezegonkortasunaren kontra borrokatzeko, plantila estrukturalak zehaztean aurrerapauso handiak.

- Behin-behineko langileentzako babesa ere lortuko da, deialdietatik lan poltsak sortzen hasiko dira eta. Baita antzintasuna ere onartua izango da.

- Iurretako trasladoaren negoziazioei eta emaitzari ere balorazio ona egiten diegu. Erabakigarria izan zen mobilizazioekin hasia.

- Azpikontratentzat hobekuntzak eta kontrolerako batzorde bat ere eratu da, oraindik ibilbidea eta eskumenak sendotu beharra badu ere.

Eta oraindik ere ez dira makalak aurrean ditugun erronkak, LABek konpromisotzat hartzen dituenak:

- Plantilla estrukturala berriro aztertu beharko da, komunikazio eskaintza berriek suposatzen duten lan karga, dagoen behin-behinekotasuna eta kanporatuta dauden zerbitzuak aztertu ondoren.

- Kontratazio politika garden, egonkorra eta duin bat, behin eta berriz Lan Ikuskaritza edo epaitegietara jo behar ez izateko.

- Lan hitzarmenetik kanpoko ordutegiak erregularizatzeko aukerak ere aztertu behar dira.

- Euskalduntze Plana, Aukera Berdintasun Plana garatzeko daude oraindik, eta LABeko ordezkariok ere nahiko lan badugu gai hauen garrantziaz gainontzeko ordezkari eta langileak jabetu arazteko.

- EITBko komunikabideak benetako zerbitzu publiko izateko borroka gogorra behar da. Zein komunikabide publiko eredu nahi dugun aztertzeko konpromisoa hartu dugu. Aurten gainera ditzosozko "Estilo Liburua" publikatzeko asmoa dute, eta dagoeneko bere kiratsa nabaritzen hasi gatzazkio.

Esandakoa. Indarrak bilduz aldaketa eragitera goaz ETB eta Eln ere. Halere komunikabide publikootako langileok ezin dugu beharrezkoa den aldaketa politiko eta sozialaren zain egon. Dagoeneko norabide horretan geure ekarpena egiteko aukera badugu, eta ez da makala izango. LABeko ordezkariok ederki asko frogatua dugu ez diogula inori ezer zor eta lan egin eta borrokatzeko prest gaudela, erantzukizunez.



Maiatzean ETB eta Euskadi Irratiko delegatuek egindako agerraldia

LABeko sail sindikalak
Euskal Telebista eta Eusko Irratia

www.labsindikatua.org/eitb
eitb@labsindikatua.org



indarrak bildu eta aldaketa eragin

hauteskunde sindikalak
2010-2014



Euskal Telebista
Eusko Irratia




indarrak bildu eta aldaketa eragitera goaz

Euskal Herria krisialdian murgildu dute, eta dagoeneko LABek gehiengo sindikalariekin bi greba orokor deitu ditu. Maiatzaren 25ean Sektore Publikoaren defentsan egindako greba ere gogotik landu genuen EITBn. Gainera EITB berariazko krisialdia pairatzen ari da. Bestela esanda, zuzendaritza honek EITBekin egiten ari dena bertako langile guztion eta euskaldun guztion kaltean doa. Aurreko zuzendaritzak ere euskal komunikabide publikoa alderdikieriaz eta bazterkeriaz erabiltzen, eta karguak digitalki ere ematen bazituen ere, zuzendaritza berri honek modu lotsagarrian zapaldu du azeleradorea. Erredakzioetan dagoen kontrola eta jazarpena itogarria da, albistegien -eta oro har programazio osoak- trataera eta testuinguru espainiartzailearen eraginez.

Azken asteotan sekulan bizi izan ez duguna gertatu da ETBko erredakzioan. Zentsura zuzena ezarri da. Zentsura hori ez onartzeagatik zuzendaritzak kazetari bat zigortu du, eta lankideak antolatu nahi izateagatik behin-behineko erredakzio kontseiluko kide bati ere espediente ireki nahi diote. Ondo frogatu dute profesionaltasunaren gainetik erabaki politikoek agintzen dutela, eta adi egongo gara aurreko argitaratutako duten estilo liburuarekin, zeresan eta zeregin asko eragingo du eta.

Maiatzean LABeko ordezkari guztiok egin genuen agerraldian adierazten genuen kezka berretsi egiten zaigu. Ez dakigu azkenean gobernu honek EITB doktrinamendurako erabili nahi duen, edo bestela, ikus-entzuleez hustu ondoren, zakarrontzira bota nahi duen. Halaxe adierazten dute audientziek, eta ez dirudi horrek asko ardura dienik, azken finean, aginteko alderdiek komunikabide publiko zein pribatu gehiago dituzte eta. Ba, LABi bai, asko ardura dio ETB eta Elren etorkizunak. bertako langile garelako, eta baita euskal herritarrek garelako ere, eta zentzu horretan erantzukizun handia dugulako. Noizko herritarren benetako kontrola duen komunikabide publikoa, eragile sozial, politiko eta sindikalen parte hartze benetakoa eta demokratikoarekin?

Ikuspegia ere ez da xamurragoa ikusten lan-baldintzei begiratuz gero, azken urteetako joera konpontzetik urrun dago eta. Zuzendaritzaren norabide ezarekin ez dago ezertan aurreratzeko aukerarik. Euren arteko koordinazio falta oso nabarmena da arlo guztietan, eta negoziazio kolektiboaren eskubidea bahitu dutela gaineratu behar da. Soldata igoera EAEko Mahai Orokorrak ezartzen badigu ere, han onartzen diren gainontzeko hobekuntzak ukatu egiten dizkigute. Gainera, alde bakarrez soldata murrizten badigute, zer aukera gelditzen zaigu negoziatzeko? Gaia epaitegietan badago ere, zurrumbilo horretatik ateratzeko mobilizazioa da berme bakarra LABen iritziz.



Segis Gonzalez - ETB Bilbo

Ez dut ulertzen enpresa publiko batek halako kontratazio politika eduki dezakeenik

Oraindik ere egun bakarreko kontratu piloa egiten da, lan pilaketagatik, hiru hilabeterako interinitate kateatuak, gestoreen ordezkapen kontratazio irregularrak... eta arlo askotan gainera. Lan Ikuskaritzara behin eta berriz jo behar izan dugu, eta emaitzen zain gaude. Batzuetan emaitza onak izan baditugu ere, hainbatetan sindikatuoi interbentzio eskubidea ukatu digute, kontratu merkantilekin bezala. Oposaketekin egonkortasuna handituko da, eta eratuko diren lan poltsek arazoa neurri batean konponduko dute, baina aurrean lana dugu oraindik.



Jasone Agirre - ETB Bilbo

Emakume eta kazetari bezala gustura lan egin gura dut

Ondo dakit ETBn aukera berdintasun plan bat seriotasunez negoziatzen ahalegindu den bakarra LAB izan dela. Zuzendaritzak enpresa bati enkargatutako plana ezartzeko asmoa du talde osoarentzat, langileen ordezkariekin adostu ala ez, beste barik 2009rako legea bete behar zuelako. Erredakzioan ez da giro. Betikoa baina oraindik okerrago. Ez dago garapen profesionalik lagunkeria eta alderdikeria baino. Erredakzio Kontseilua sortzea eta Erredakzio Estatutua negoziatzea aldarrikatzen ari garela urteak dira. Orain arteko zuzendaritzek ez dute gura izan eta oraingoak bere aginduetara moldatutakoa nahi du. Ez bata, ez bestea. Ekinean jarraitu behar dugu goitik beherako erredakzio profesional bat lortu arte.



Jabi Estebanez - ETB Miramon

Azpikntraten kontrola hobetu da, eta argi ibili behar dugu

Egia da aurreko lan hitzarmenaren negoziazioan markatu genuen estrategiak emaitza onak eman dituela: Plantila estrukturala zehaztea eta azpikntraten baldintzak eta kontrola hobetzea lortu genuen, prekarietatea neurri handi batean gaituz. Halere, oraindik ere azpikntratetan despotismoa, jazarpena eta bidegabekeriak ematen dira, hain zuzen ere babesik gutxien duten langileekin. Etengabe salatzen ibili behar izaten dugu, eta borroka sindikalaren bidez horrelako jokabideak atzera botatzea lortzen da.



Urko Artano - ETB Miramon

Miramonek proiektu propioa behar du

Miramonek beti kolokan ikusi dut, konpromisorik gabe hartuta... eta zuzendaritzaren lehentasunen artean ez omen dagoela jakin izan dut. EITB osoaren norabidea lehentasuna baldin badute, eta nora doan ikusten dudanean, dardarka hasten naiz. Ez dago arduradunik, edota baldin badago ez du ardurarik hartzen, eta denak inertziak funtzionatzen du. Aurrera ateratzen den lan guztia hain zuzen ere langileon erantzukizunagatik ateratzen da. Aurreko zuzendaritzarekin bilerarik ez egitea erabaki genuen, alferrik zelako, bilerek inolako etekinik ez zutelako. Zuzendaritza aldatu bada ere, interlokuzioa mantentzen da. Miramonen astindua emateko garaia iritsi da, eta horretara goaz.



Arritxu Iribar - Euskadi Irratia

Kontratu merkantilekin bueltak etorriko zirela bagenekien

Bere garaian egoera irregular zehatz batzuei konponbidea ematearren akordiora iritsi ginen zuzendaritzarekin. Eskua eman eta beso osoa hartu nahi izan zuten. Irratietan kontratuen merkantilizazioa orokortzen hasi ziren, eta sindikatuok eskuak lotuta ikusi genituen, izan ere ETBko kasu batean lan ikuskaritzak aukerak mugatu zituen, salaketak langileek beraiek jarri behar omen dituztelako. Halere, kostata, baino zuzendaritza iruzurreragatik jasotzen ari da zigorra, eta arduradunek sindikatuongana jo dute laguntza eske. Inoiz baino argiago dugu konponbidea, dagoeneko antolatuta ditugun lan poltsak eta eskaintza publikoak izan behar dira arazoa konponduko dutenak.



Edu Lorza - Gasteiz Irratia

Irratiek proiektu bizia eta propioa behar dute

Gasteiz Irratian, kargu aldaketarekin batera, publikotasunaren irizpide eza eta barne inkomunikazioa nagusitu dira. Eguneroko programazioa langileok hartutako erantzukizunari esker aurrera ateratzen da, eta bertako prekarietatearekin amaitu behar da. Langileen behin-behinekotasuna murrizteko lan eskaintza publiko zabal bat nahitaezkoa da. Gaur egun, inprobisazioa eta komunikatzaileen arteko aldetak mantentzen dira, honen ondorioz, entzuleek zeuzkaten erreferentziak galdu egin dituzte eta beste Irratiengana jotzen dute. Arabako jendartearentzako zuzendutako euskarazko eskaintza oso urria eta eraginkortasunik gabekoa da.